

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko ekainaren 29a. IX. urtea. 2.376. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



URKIZU

Mari Jose Odriozola Pello Odriozola euskal presoaren arreba

«Pellok Tolosan egiten diren mobilizazioen berri du eta oso ondo hartzen ditu»

Preso tolosarrak 2008tik behar zuen kalean, baina Parot Doktrina ezarri eta hamar urtez luzatu zioten espetxealdia; Herrirak ekitaldi ugari antolatu ditu, tartean, bihar Tolosan egingo duten manifestazioa ◦2

Hiru lurraldereen kulturtrukea gaurtik aurrera, Ibarra

Euskal Herria, Sahara eta Rapa Nui herriek egingo dute topo Kulturantz ekimenean ◦7



Udaleko eta Alurreko ordezkariak aurkeztu zuten ekimena, herenegun. IT

Iker Beristain
Atleta

«Nire ametsa olimpiar joko batzuetara joatea da, baina ia ezinezkoa da»

Elkarrizketa ◦6

Haurrek eman diete hasiera Asteasuko San Pedro jaiei

Asteburuan festa giroa izango da nagusi ere Areson, Leaburun, Amaratzen eta Urkizun ◦6



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA

ingeleraz
ere bai

ziklo guztiak
euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

MATRIKULA EPEA: Uztailaren 5etik 11ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Metal eraikuntzak

Bigarren Skate Txapelketa eta musika izango dira bihar, skate parkean

Egurdian hasiko dira ekitaldiak, baina txapelketa 16:00etatik aurrera izango da, parrilladaren ondoren

I. Urkizu

Aurten, bigarren antolatuta dute Tolosako Skate Txapelketa. Bihar izango da, 12:00etatik aurrera, Usabalgo skate parkean.

Egurdiko patinatze librearekin hasiko da festa, eta 14:00etan bazkari legea egingo dute, parrilladarekin. Txapelketa, 16:00etan hasiko da, eta iluntzera bitarte ariko dira lehian. Horrela beraz, 20:00etan ospatuko dute sari banaketa. Emakumezko nahiz gizonen irabazleek, 350 euroko ordainsaria jasoko dute, eta bigarren postua eskuratzen dutenek, berriz, 150 euroko ordainsaria. Era berean, materiala eta oroi-garriak ere jasoko dituzte Skate Txapelketako irabazleek.

Sariak banatu ondoren, festa nagusi izango da, 20:30ean. Musika zuzenean izango da, Hondarribiko Mushroom Caffeine eta Tolosako Border Line taldeen eskutik, gauerdira bitarte.

o tolosa@hitza.info



laz izan zen lehen txapelketa. I. URKIZU

Mari Jose Odriozola o Pello Odriozolaren arreba

2008an Parot Doktrina ezarri, eta hamar urte luzatu zioten espetxealdia Pello Odriozola tolosarrari. Mari Jose Odriozola arrebak, lehenago irtengo denaren itxaropena du.

«Ez dakit Raxoiren gobernuaren zeren zain dagoen; oso eroso daude orain»

Itzea Urkizu

Mari Jose Odriozola (Tolosa, 1951) Pello Odriozola presoaren arreba da. 2008ko uztailaren 2an amaitzen zitzaion zigorra Pello Odriozolari, baina Parot Doktrina ezarri, eta beste hamar urte luzatu zioten espetxealdia; ia 100 preso daude bere egoera berean. Bihar, Tolosako Herrirak antolatuta, Zuerako (Zaragoza, Espainia) espetxera irteera egingo dute, bate-tik, eta manifestazioa, bestetik, Tolosan, 19:30ean, Trianguloatik abiatuta.

Nola jaso zure anaiak, beste hamar urte espetxean egon behar zuela zioen berria?

Ondo. Nik uste dut prest zegoela horretarako. Nik aterako zela esaten nion, eta berak esaten zidan: «Uf! Oinak lurtean ditut, eta ez dut uste oraindik irtengo naiz-nik». Beharbada barruan izango zuen itxaropenik, baina egoera nola zegoen ikusita, espero zuen. **Eta senideok nola hartu zenuten?**

Okerrago. Itxaropen handiagoa genuen guk. Izan ere, berarekin batera sartu zirenen artetik, bera bakarrik geratzen da barruan. Gainera, ETAK armak utzi zituela jakinarazi zuenean, martxorako etxean irudikatzen nuen anaia. Oraindik zortzi urte geratzen zaizkio berez, baina hau lehenago konponduko dela espero dut. Hala ere, ez dakit Mariano Raxoiren gobernuaren zeren zain dagoen; oso eroso daude dirudi orain. Gaixo dauden presoak ere ez dituzte ateratzen orain. Eta Parot Doktrinari dagokionez, legez kanpoko zerbaite da. Lehen, hitze-



ITZEA URKIZU

kin leku guztietara iritsiko zirela zioten, baina hori ez da horrela. Guk ezin dugu ezer egin, itxaropena izateaz haratago.

24 urte daramatza zure anaiak kartzelan. Nola darama berak hain den bora luzez espetxean egote hori?

Ondo daramala uste dut, bai. Pasa den ostiralean izan genuen, senarrak eta biok, bisean biseko bisita Pellorekin, eta oso ondo dago; aldarrez primeran dago, eta osasunez ere, beste hainbeste.

Nolakoa da familiarentzat, 24 urtean harreman hori bisiten bidez mantentzea?

Harremanak berdin-berdin jarraitzen du, bai.

Joan-etorri asko egindakoa izango zara 24 urte hauetan.

Bai. Madrilen (Espainia), Herrera de La Mancha (Ciudad Real, Espainia), Ourensen (Galizia) eta Lugon (Galizia) egondakoa da anaia. Azken lau urteotan, berriz, Zueran dago (Zaragoza, Espainia). Ourensen, adibidez, bisean bisekora-eta, banaka joaten ginen; Donostian zortzietan autobusa hartu, eta hara seietan iristen ginen. Han, espetxea mendi batean dagoenez, taxia hartzen genuen bertaratzeko. Lugora ere berdin-berdin joaten ginen; izan ere, autoan ia zazpi orduko bidaia izaten zen bestela. Zuerara joatea osteratxo da, 200 kilometro inguru besterik ez daude; eta gauza bera gertatzen zen Herrera de La Mancharekin ere, autobusa baitzegoen hara joateko.

Eta bisitak nola antolatzen dituzte? Lagunak astero joaten dira orain. Lehen, zerrenda librea izaten zen, eta edozein lagun edo senitatek kok joan zezakeen bisitan; ez zego-

en kopuru finkorik. Orain ordea, legea aldatu dute, eta sei hilabeteko aurrerapenarekin hamar pertsonako izen zerrenda eman behar da, bisitetara joan ahal izateko. Hurrengo sei hilabetean aldatu egiten dugu zerrenda, beste pertsona batzuk joateko.

Bihar, Zuerako espetxearen kanpoaldean ekitaldia egiteko asmoa duzue. Iritsiko al zaio aldarrikapen horren berririk?

Pentsatzen dut baietz. Baina ea polizia autobusari haraino iristen uzten dion. Bestalde, Tolosan antolatzen diren mobilizazioen berriak ere jasotzen ditut, eta oso ondo hartzen ditut.

Eta zuei ere nolabaiteko babesa ematen dizuete aldarrikapen hauek?

Bai, positiboa da. Jendea mugitzen da, eta gazte asko, gainera.

↓ Azken ostirala

GAUR

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketak.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 19:00etan.
- **Berrobi.** 19:30ean.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Irura.** 19:30ean, plazan.
- **Gaztelu.** 20:30ean, plazan.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leaburu.** 20:15ean.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leitza.** 20:00etan.

Oria ibaia garbitzeko deialdia egin dute bihar goizetarako

Oria eta Urumea ibaien ertzak garbitzeko egitasmo hau Urgarden taldeak antolatuta du

I. Urkizu

Urgarden taldeak, zortzi garbiketa egin ditu jada, Oria nahiz Urumea ibaia pasatzen diren hainbat lekutan; bihar, Tolosan egingo dute garbiketa, eta herritarrei bertan parte hartzeko deia egin diete.

10:30ean Berazubini elkartuko dira, 66 tabernaren parean, eta hirigunetik pasatzen den ibai zatia garbitzea da helburua.

Oinezko boluntarioek, ibai baterrean egingo dute garbiketa, eta ontzietan etortzen direnek, berriz, uretatik egingo dute. Horrela beraz, kanoarekin, piragua-rekin, eta antzekoekin bertaratu nahi duenak ere, egin ahal izango du. Antolatzaileek, ibaian ibiltzeko bota egokiak ekartzea gomendatu dute.

Aipatzekoa da, Urgarden taldeak udazkenara bitarte Orian burutuko duen azken auzolana izango dela biharkoa.

o tolosa@hitza.info

→ Laburrak

Bihar izango da ekaineko Tolosa Kantari

MUSIKA ▸ Hilabeteroko azken larunbatero egiten duten moduan, bihar, Kantu Jira izango da Tolosa Kantari taldearen eskutik. Hilabete honetan, Giro Arte dultzaina taldearekin egingo dute kantu jira. 12:00etan Tontokaletik abiatuko dira, eta Alde Zaharrean barrena ibili eta gero, 14:00ak inguruan amaituko dute.

20 jokalaritza iturritzako mus txapelketan

AISIA ▸ Pasa den ekainaren 22an, Iturritza elkarteak mus txapelketa jokatu zuten, 20 lagunek. Honakoak izan ziren irabazleak, 4 erregetara: J.Telleria-J.Toledo txapelkunak eta J.Ibarguren-J.Bastarrika txapelkunordeak. 8 erregetara, berriz, Juanin Gonzalez-Serapio Agirre izan ziren irabazleak, eta bigarren Wences-San Sebastian bikotea izan zen.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Herriko plazan jarri zuten jangela txiki gelditu zitzaizen asteasuarrei haurren eguneko bazkarian. A. IMAZ

Asteasuko jaien lehen egunean 250 haur elkartu dira txikienen bazkarian

Literatura eta marrazki lehiaketako sari banaketa ekitaldia egin dute bazkaltzen hasi aurretik

Asier Imaz Asteasu

Haurren eguna ospatuz hasi zizuten Asteasun San Pedro jaiak, atzo. Txupinazo goiztiarraren ondoren, korrika ibili ziren haurrak, herrian barrena. Krosaren ondoren, pilotalekura joan ziren, goizeko indar guztiak erabat agortzera: bideo jokoak, puzgarriak, tatuajeak...

14:00ak inguruan, txintxo-txintxo, haur eta gaztetxo guztiak plazako karpalara gerturatu ziren. Bertan txikienen herri bazkaria zegoen, eta gurasoen laguntzarekin, bapo jan zuten 250 haur inguruk. Aurreikuspen guztiak txiki gelditu zitzaizkien antolatzaileei, eta azken unean mahaiak jarri eta jarri ibili ziren, lekuari ahalik eta etekin handiena ateratzeko helburuarekin. Bazkariaren aurretik, marrazki eta literatur lehiaketako sariak banatu zituzten artista gaztetxoaren artean.

Arratsaldean, besteak beste, poney eta zezentxoekin jolasteko aukera egon zen Asteasun.

Sanpedroak eskualdean

Asteasun jaiak gaur jarraipena izango duten moduan, Areson, Leaburun, Amaratzen eta Urkizun gaur hasiko dira jaiak ospatzen. Egitarau guztiak tolosaldea.hitza.info webgunean aurkitzen dira, papereko edizioaren atalean.



Pilotalekuan jolaeen ibili ziren haurrek sariak ere jaso zituzten. A. IMAZ



Sua filmaren estreinaldia iragartzen duen kartela. HITZA

Gaur estreinatuko dute 'Sua' filma Leidor zineman

Zine aretoan sarrerak erosteko aukera egongo da arratsaldean; atekak 20:00etan zabalduko dituzte

teko, borondatea izan da orain arte eskatu dute diru laguntza bakarra, EALeko kideek azaldu dutenez. Auzolan horren fruituak gaur botako dituzte pantaila handi batean, hau da, Leidorren.

A. Imaz Tolosa

Eneko Aritzaren Lagunek egin duten *Sua* filma gaur estreinatuko dute Tolosako Leidor zine aretoan. Filmeko partaideen esanetan, jadanik 400 sarrera inguru saldu dituzte, eta egunean bertan, hau da, gaur, Leidorreko leihatilan egongo dira gainontzeko sarrerak salgai. Orain arte sarrera salmentak izan duen «abailarekin», Eneko Aritzaren Lagunak elkarteko kideak gustura agertu dira, izan ere, jadanik zine erdia bete dutela azpimarratu nahi izan dute. Sarrera erosi ez dutenei ere zuzendu zaizkie EALeko kideak, herri proiektu honi sostengua emateko eskatuz.

Sua filma duela zortzi urte hasi ziren prestatzen: gidoia, grabaketak eta muntaia. Prozesu honetako gastu guztiak taldekideen poltsikotik ordaindu zituzte, «diru laguntzen zurrumbilo ero horretan sartzeko denborarik ez baitugu inoiz izan». Gastuei aurre egi-

Ezusteko eta guzti

Sua filmaren aurre estreinaldia ekainaren 2an egin zuten Arabako Ozaetan. Filma ikusteaz gain, «azken akelarrea» deiturikoa ospatu zuten bertan. EALeko kideek azaldu dutenez, «izugarriko giroan egun ederra igaro genuten Ozaetako Otazu auzoan. Arratsaldean hasi zen jaia, goizeko ordu txikietan amaitu zen. Bertaratu ziren guztiak, beraz, eskerrak eman nahi dizkiegu. Eskerrak zerrrenda, ordea, ez da Ozaetako emanaldian amaitzen. Leidorren izango diren guztiei ere gauza bera esan nahi diegu, eta baita herri film honetan parte hartu duten herritar guztiei ere».

Sarreraren kostua 6 eurotan jarri dute *Sua* filmaren egileek. Emanaldiaren aurretik, ezusteko batzuk egongo direla ere azaldu nahi izan dute. Duela hamar urte, Eneko Aritza film laburra aurkeztera limusina batekin azaldu ziren EALeko kideak. Batek daki gaurkoan zein ezuste izango duten esku artean.



Filmaren aurre estreinaldia, Arabako Ozaeta herrian. HITZA

Altuna-Irisarri kadeteetan eta Altzelai-Urbieta 23 urtez azpikoan ariko dira, Elgetan

Eskualdeko pilotariak Elgetako txapelketako finalera iritsi dira; gaur 22:00etan izango da pilota jaialdia

Eneritz Maiz

Elgetako Pilota txapelketako finalera iritsi diren pilotarien artean, lautik hiru eskualdekoak dira. Kadeteen mailako lau t'erdikoan, Jokin Altuna amezketarrak, taldekide duen Iker Iribarriaren aurka jokatu du finala. 23 urtez azpikoan kasuan, berriaz, Julen Altzelai alkizarrak eta Xabi Urbieta asteasuarra iritsi dira finalera.

Izen handiko txapelketa da Elgetako torneo. Kadete eta 23 urtez azpikoan partidak daude jokatu

an. Eskualdeko pilotariak maila ona erakutsi dute, eta nahiz eta Iker Irisarri aramarra eskualdekoa ez izan. Amezketako Zazpi Iturri taldeko pilotaria da.

Jokin Altuna eta Iker Irisarri elkar ondo ezagutzen dute, eta gaur 22:00etan elkarren aurka jokatu dute finala. Iaz ere finala jokatu zuen amezketarrak, baina ezin izan zuen txapela jantzi Xabier Artolaren aurka.

23 urtez azpikoan kasuan, Alkiza eta Asteasu herrietako semeak neurtuko dituzte indarrak. Julen Altzelai alkizarra eta Xabi Urbieta asteasuarra iritsi dira finalera.

Alegiako II. Pilota txapelketa

Alegiako II. Pilota txapelketako finalerdietako partidak jokatu dituzte, bihar. 22:00etan hasiko dira partidak. Kadeteek lau t'erdian jokatu dute, eta Aurrera

Saiaz taldeko Aburuzak, Intxurroko Larrearen aurka jokatu du. Ondoren, afizionatuen mailako binakako partida izango da. Kasu honetan, Gallurralde-Resusta bikoteak, Artola-Aizpururen aurka jokatu du.

Finalak, herriko Karmen festen barruan, uztailearen 13an, jokatuko dira.

Zeberio, erremontean

Pilotako finalekin jarraituz, Patxi Zeberio elduaindarrak Ion azpeitiarra lagun duela Gipuzkoako Torneoako finala jokatu du. Gaur, 22:30ean Zestoako pilotalekuan izango da. Urriza eta Etxeberria III.a izango dituzte aurkari. Txapelketa honetan parte hartu izan duen arren, ez du inoiz irabazi txapelketa hau. Gaur, bere garapenen zerrendara beste bat gehitzeko aukera izango du.

→ Laburrak

IV. Herri Batzarra egingo dute 21:00etan, gaur

BERASTEGI » Berastegiko udal taldeak IV. Herri Batzarra egingo du. Gaur, 21:00etan eskolako ganbaran izango da. Herritar guztiak gonbidatu dituzte, eta gai hauek jorratuko dira: udal-txarearen zaharberritzearen jarraipena, ur zerbitzuen kudeaketa, isunak eta arau hausteak, zuzeneko salmenta,...

Udapasa Artistikoetan izena ematen azken eguna

TOLOSA » Tolosako Udapasa Artistikoetan izena emateko azken eguna da gaurkoa. Uztailearen 2tik 13ra izango dira, eta Artekin elkartea da antolatzailea. Izena Tolosako musika eskolan eman behar da.

Loatzo musika eskolaren ordutegi berriak ikusgai

MUSIKA » Loatzo musika eskolak, 2012-2013 ikasturteari dagozkion ordutegiak ikusgai jarriko ditu astelehenean aurrera. Musika eskolak ematen dituzten herri guztietako ateeetan jarriko dituzte. Ordutegiak arazorik izanez gero, irailaren 3an, 09:00etatik 14:00etara, 943 69 26 19 telefono zenbakira deitu beharko da.

Aimar Sagastibeltzak Eibarrekin jokatu du

LEITZA » Aimar Sagastibeltza leitzar futbolariak Eibar taldearekin egin du hurrengo denboraldirako hitzarmena. Teruel taldean eman ditu bi urte, eta orain, Eibarrekin sinatu du urtebeterako hitzarmena. Atzelaria da, eta aurten sei gol sartu ditu.

Tolosa eta Alegia arteko bidegorria moztuta

TOLOSA-ALEGIA » Igande gauean Tolosa eta Alegia arteko bidegorria itxi egingo dute. Egoera txarrean dauden zuhaitzak moztu behar dituztenez, 15 egunez itxita egingo da.

Baserri paisaien argazki lehiaketa jarri du martxan Tolomendik

Tolosaldean ateratako argazkia aurkeztu behar da; irabazleak Lurlanen produktuekin osatutako saskia irabaziko du

E. Maiz

Tolosaldeko Landa Garapen elkarteak, baserri paisaien inguruko jardunaldi batzuk egin ditu. Hori dela eta, baserri paisaien inguruko argazki lehiaketa bat antolatu du. Parte hartu nahi duenak, Tolosaldeko landa eremuan ateratako argazkia tolomendi@tolomendi.net helbidera bidali behar du. Non ateratakoa den eta baserri paisaia hori zergatik aukeratu duen zehaztu behar da. Pertsona bakoitzak argazki bakarra bidali dezake uztailearen 31a baino lehen. Saria, Lurlanen saski eder bat izango da.

Ez ohiko osoko bilkura egingo dute asteartean, 14:00etan, Amezketan

E. Maiz Amezketan

Uztailearen 3an ez ohiko osoko bilkura egingo dute, Amezketan, 14:00etan. Lehenik eta behin, apirilaren 26an eginiko ohiko bilkurren akta onartuko dute, eta ondoren, alkatetza ebazpen berri emango dute. Jarraian, 2012. ekitaldi ekonomikoari dagokion 1/2012 zerbakidun kreditu aldaketaren espedientearen onarpena; hondakinen kudeaketari buruzko erabakia; eta Lehiberri zentroaren proiektuari buruzko mozioa jorratuko dituzte. Batzordetako informazioarekin, eta galde-erreguekin amaituko dute.

«Ondoan ez dauden gazteak» gogora ekartzeko ibilaldia, bihar

17:00etan Artubi elkartetik abiatuko dira; lore eskaintzak egin ostean, afaria egingo dute Abaetxe jatetxean

E. Maiz

Bihar, hilak 30, mendi ibilaldi txiki bat burutuko dute, Bedaion. «Dagoeneko ondoan ez dauden gazteak gogora ekarri asmoz egingo dugu ibilaldia. Maiz, bizitzak bidean zehar oztopo ugari jarri izan dizkigu. Ez behar edo osasun arazoak direla medio, bihar, oztopo horiek samurtzen saiatuko gara», argitu dute antolatzaileek. Lagun artean eta jai giroan pasako dute eguna.



laz jende asko elkartu zen ibilaldia egiteko, HITZA

17:00etan Artubi elkartearen emango diote hasiera, eta ohiturari jarraituz bertako hilerrian lore eskaintza egingo dute. Ondoren, mendira abiatuko dira, eta bertan, gazteei jarriak dauden monolitoetan oroimenezko lore sortak eskainiko dituzte.

Ondoren, 21:00etan Abaetxe jatetxean izango da afaria. Sagardotegi menua izango da, eta sagardoa ziritik dastatzeko aukera izan da. Afal ostean, Gorostidi eta Muñoa bertsolariak izango dira, eta baita Xabier eta Iñaki bikotearen eskutik trikiti doinuak ere.



Ezenarro

SAN FRANTZISKO 26, Behea
20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 85 36

GARMENDIA OTAOLA 3, Behea
20200 BEASAIN
Tel.: 943 08 42 02

ezenarrosl@hotmail.com

PVC • ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA • AROZTEGI MISTOA • POLIURETANO • BARANDAK • HORMA-ARMAIRUAK

Martxoarekin batera hasi zen Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA eskualdea ezagutzeko ibilbide sorta argitaratzen. Orexaren inguruneaz gozatzeko aukera ematen duen garuko ibilbidea da bildumako azkena.

Orixeren jaioterriko bideetatik



Orixeren eskultura eta Gurutze Donearen eliza. I.G.L.



Udaletxea herriko plazan bertan dago. I.G.L.



Orexa naturaz inguratuta dago. I.G.L.



Imanol Garcia Landa

Orexako ibilbide honek aukera ematen du herriaren alde batera eta bestera ibilaldi lasaia egiteko. Biztanle kopuruari begiratzuz gero, Orexa Gipuzkoako herri txikienetakoa da, eta horren adierazle da herriko ia etxebizitza guztiak baserriak eta etxe atxikiak direla.

Ibilbidea plazan dagoen autobus geltokitik hasten da. Ezkerra-

ra, udaletxearen ondotik, doan maldatxoa igo eta bide horretatik jarraitu behar da. Eskuinera Orixe idazlearen (Nikolas Ormaetxea zuen berezko izena) eskultura dago, eta gorago Gurutze Donearen eliza. Bidea aurrera jarraitu behar da, elizara doan bidea hartu gabe. Hainbat baserriren ondotik igaro ondoren, bideak bira nabarmena egin eta bide gurutze batera iritsiko da. Hor buelta eman eta plazara itzuli, aurreko bide beretik.

Itzulerakoan, Malloak mendilerroa ikus daiteke urrunean. Orexara doan bidea bertan bukatzen da, ez da, beraz, igarobide bat, eta horrek begien aurrean zabaltzen den paisaian eragina du: baso, zelaiek eta mendiek betetzen dute ikuspegia.

Behin plazara itzultitakoan, frontoi gainetik doan zementuzko bidea hartuko da. Frontoia da herriko kirol gunea, eta bertan, pilotan jolasteaz gain, futbolearen eta saskibaloian jolasteko aukera dago. Bidean aurrera eginez, bi langa igaro behar dira. Herriaren beste aldera egindako bidean baserriak eta etxeak baziren nagusi, oraingoan ez da ia eraikinik, eta natura oraindik gehiago nabaritzen da. Aldapa piko bat hasten denean, bide nagusia, zementuzkoa, utzi eta eskuinera doan pista hartu. Baserri bateraino iritsi ondoren, buelta hartu eta berriro herriko plazara itzuli.

Udaletxea eta eliza

Plazara iristerakoan, ibiltariak tarte bat hartu dezake herriko bi eraikin aipagarrienak lasaia gozatzeko. Eliza XVI. mendekoa da eta udaletxeak aurrealde guztia osatzen duten puntu erdiko arkuak osaturiko arkupeak ditu.

Orixek ere aipamen berezia merezi du, Orexari buruz hitz egiterakoan. 1936ko gerraren aurretik Euskaltzaindian Azkue lagundu zuen, eta *Euzkadi* egunkarian euskal atalaren ardura hartu zuen Kirikiñoren ondoren. Itzulpenak, poemak eta beste hainbat sorkuntza-lan idatzi zituen idazle orexarrak. Narratibari dagokionez, *Santa Krux apaiza* biografia nobelatua da lanik aipagarrienetakoa.

DATUAK

- **Luzera.** 4.600 metro.
- **Ezaugarriak.** Bi joan-etorri.
- **Hurbilketa.** Renfe trenean Tolosara eta gero autobusean.
- **Hasiera-bukaera.** Orexa autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Malda errazak eta bat edo beste piko samarra.
- **Azalpenak.** Orexa inguruan ibilaldi ederra.
- **Interesguneak.** Elizako erre-ntaula, Udaletxea, Naturgunea.



A. IMAZ

Iker Beristain ◉ Atleta

Futboleko hasi, baina gustura ez, eta atletismoarekin proba egin eta ezin gelditu. Iker Beristain billabonatarra Espainiako Txapelketan egongo da uztailaren 7an, 5.000 metroko proban.

«Atletismoan jarraitzea eta denborak hobetzen segitzea gustatuko litzaidake»

Asier Imaz Amasa-Villabona

Tolosa CF atletismo taldeko kidea da Iker Beristain (Villabona, 1995). Aurtengo denboraldian emaitza bikainak lortu dituen arren, berarentzat ez da oso urte ona izan. Lesioekin hamaika arazo izan ditu, eta egun, bihurritu batetatik atera nahian, errekupe-ratio lanak egiten ari da. Hala eta guztiz ere, Aranjuezen jokatuiko den Espainiako Txapelketetarako prest egotea espero du, nahiz eta ez den sasoirik hoberenean nuen. Egia esan, ez nintzen konturatu karrera bukatu arte. Buki eta denbora pixka batera konturatu nintzen. Medikuek bizikletan ibiltzeko eta igeri egiteko esan dit.

Ezin nahi moduan prestatu uztailaren 7ko hitzordu garrantzitsua, bihurritu bat medio. Iritsiko al zara Espainiako Txapelketara?

Espero dut prest egotea. Hala eta guztiz ere, entrenamendu asko galdu ditut lesioarengatik, eta uztailaren 7an izango dudana sasoi, ez da niri gustatuko litzaidakeena izango.

Nola hartu zenuen min, eta medikuak zein aholku eman dizu?

Lesioa lasterketa batean egin nuen. Egia esan, ez nintzen konturatu karrera bukatu arte. Buki eta denbora pixka batera konturatu nintzen. Medikuek bizikletan ibiltzeko eta igeri egiteko esan dit.

Zein helbururekin joango zara Aranjuezera?

5.000 metroko proba korritzera joango naiz. Hala eta guztiz ere, ez dut gauza handirik egiteko esperantzarik, lehen esan bezala, lesioarekin sasoi galdu baitut. Gainera, proba hauetan oso maila altua egoten da.

Aurtengo lorpenak ikusita, gustura egoteko denboraldia egiten ari zarela dirudi. Sentsazio horrekin al zaudete?

Egia esan behar baldin badut, nire ustez ez da oso urte ona izan, batez ere, lesioarengatik. Zorte txarra edukitu dut aurtengo denboraldian. Adibidez, krosean, Espai-

niako taldekako txapelketarako sailkatu ginen, baina azken momentuan, kide bat lesionatu egin zitzaigun. Parte hartzeko lau kide behar izaten direnez, ez ziguten ateratzen utzi. Krosearekin jarraituz, Espainiako banakako txapelketan, gaixo jarri nintzen ez nintzen atera ere egin.

Krosean eta pistan ibiltzen zara korrika, 3.000 edo 5.000 metroko distantzian. Zeintzuk dira bata eta bestearen ezaugarriak eta bien arteko desberdintasunak?

Krosean indarra eta erresistentzia dira garrantzitsuak, askotan lokatza eta aldapak egoten baitira. 3.000 eta 5.000 metroko probetan berriz, erresistentziaz gain abiadura pixka bat beharrezkoa izaten da; txispa pixka bat.

Zein da gustuko duzun distantzia edo proba? Eta zergatik?

Ni nahiko motela naizenez hobeto moldatzen naiz krosean, baita 5.000 metroan ere. Hurrengo denboraldian, 10.000 metroko distantzian probatzea ere gustatuko litzaidake.

Aurtengo denboraldia noiz hasi zinen prestatzen?

Entrenamenduekin irailean hasen gara. **Entrenamenduak non eta noiz egiten dituzue?**

Berazubin egiten ditugu entrenamenduak. Asteazkera, arratsal-

detan joaten gara bertara, eta asteburuetan, goizetan.

Nolako entrenamendu saioak egiten dituzu?

Neguan kilometro asko egiten ditugu: asteen 90 inguru, intentsitate baxuan. Denboraldia aurrera doan ahala, kilometro gutxiago egiten dira, baina intentsitatea handitu egiten da.

Atletismoan zure lehen urratsak nola izan ziren, eta zergatik aukeratu zenuen kirol hori?

Egia esan futboleko hasi nintzen, baina oso ona ez nintzen, talde-tik bota egin ninduten. Lagun batek, atletismoan hasteko esan zidan; hasi eta gustatu egin zitzaizdanez, bertan geratu eta jarraitzen dut.

Etorkizunari begira, zein da zure ametsa?

Atletismoa egiten jarraitzea gustatuko litzaidake, eta nire denborak hobetzen segitzea. Nire ametsa olinpiar joko batzuetara joatea da, baina badakit ezinezkoa dela.

Zeintzuk dira gustuko dituzun atletak?

Gaur egun ezagunena Usain Bolt da, baina badira beste asko jende gutxi ezagutzen dituenak: Kenenisa Bekele, Haile Gebreselassie... Berazubi mailan nire idoloa Iker Manso da, atletismoarekin erotuta dagoelako.



Urki txapelketara itzuli da. HITZA

Zizurkilen segalariak ikusteko aukera egongo da, igandean

Euskal Herriko Segalari Txapelketako bi finalerdietan eskualdeetako segalari ugari ariko dira

A. Imaz

Asteburu honetan hainbat herri kirol proba jokatuko dira, eta ia denetan, eskualdeko kirolariak ariko dira lehiatzen. Bihar, hilak 30, Euskal Herriko Segalari Txapelketaren bi finalerdi jokatuko dira Erratzun (Nafarroa). Lehia 17:30ean hasiko da eta Jon Kanflanka leitzarria, Garikoitz Etxeberria amasarria eta Mikel Alkorta eta Juan Jose Lizaso asteazkarrak egongo dira bertan, txapelketara itzuli den Jexuxmari Ormaetxea Urki orenda indarrekin batera.

Zizurkilen ere, igandean, segalari ugari elkartuko dira lehia ederra eta bizia eskaintzeko asmoz. Azkartasuneko Segalari Txapelketa 18:00etan hasiko da, eta bertan egongo diren segalari gehienak Tolosaldekoak izango dira. Mikel Alkorta, Peio Argaña, Andoni Dorronsoro, Igor Esnaola, Garikoitz Etxeberria, Jokin Garmendia, Joakin Garmendia, Igor Igerategi, Unai Iraola, Joan Joxe Lizaso, Oier Urkola, Igaro Balda, Alatzne Etxeberria, Ainhoa Galarraga, Arrate Garin, Alaitz Imaz eta Ainara Otamendi ariko dira lehiatzen, Zizurkilen.

Egun berean, hau da, uztailaren 1ean, Usurbilgo Jose Mari Sagarria plaza, 11:30ean, Euskal Herriko Trontza Txapelketako sailkapen proba jokatu da. Gipuzkoatik bikote bakarra aurkeztu da lehiara, eta hauek Unai Iraola ikaztegiatarra eta Jokin Garmendia baliarraindarrak izango dira. Kanporaketa honetan, gutxira zortzi bikote ariko dira borrokan. Horietatik bi bizkaitarrak izango dira, eta bost nafarrak.

Kulturen elkartrukea du helburu gaurtik abian den Kulturantz ekimenak

Ibarrako Alurr dantza taldearekin batera, Iparraldeko, Saharako eta Rapa Nuiko kultur taldeak izango dira

Iñigo Terradillos Ibarra

Musika, dantza eta bestelako kultur adieraren bitartez, Euskal Herriko, Saharako eta Rapa Nuiko kulturen elkartrukea izango da Ibarra gaurtik aurrera. Izan ere, Ibarra Udalak eta Alurr dantza taldeak elkarlanean antolatuta, Kulturantz ekimena gauzatu da, uztailaren 7ra bitarte.

Herritar guztiak gozatzeko ekitaldi ugari izango dira; gaur gaueko jaialdia, esaterako. Bertan, Iparraldeko, Ibarra, Saharako eta Rapa Nuiko taldeen eskutik, dantza eta musika izango dira nagusi. Era berean, elkartrukean parte hartzen duten taldeen inguruan gehiago jakin nahi duenarentzat, bihar talde bakoitza euren herriaz mintzatu da. Gazte-txoenei zuzendutako tailerrak ere izango dira. Astelehenean, hain zuzen, Rapa Nui kulturaren dantza eta musika ezagutu, eta gorputza nola pintatzen duten ikasiko dute.

Bestalde, Ibarra datozen bisitari gure kultura ezagutaraztea da ekimenaren helburuetako bat, eta horretarako Ibarra zein inguruko hainbat txoko ezagutzera gonbidatuko dituzte. Tolosa ere izango dira, eta bertan dantza eta musika eskaintzeko aukera ere izango dute.

Elkartrukea «etxean»

Maiz egin ditu Alurr dantza taldeak Ibaratik nahiz Euskal Herriatik at emanaldiak, eta horien bitartez, «euskal kultura zabaldu du hainbat txokotan». Jaione Bengoetxea Alurr taldeko kideak azaldukoaren arabera, «desberdina da kanpoan zaudenean zure



Herenegun egin zuten Kulturantz ekimenaren aurkezpena, Ibarra Udaleko eta Alurreko ordezkariak. IT.

↓ Egitaraua

EKAINAK 29, OSTIRALA

- **20:00.** Parte hartzaileei ongietorria Ibarra udaletxean.
- **22:30.** Kulturantz jaialdia: Euskal Herria, Sahara eta Rapa Nuiko dantza, musika eta kultur espresio ugariaren erakustaldia, San Bartolome plazan.

EKAINAK 30, LARUNBATA

- **16:00-18:00.** Kultura parte hartzaileen historiaren inguruko

kultura azaltzea edo bertan zarenean ahalik eta gehien erakustea». Horregatik, oraingoan, hainbat kultura «etxera» ekartzeko unea zela erabaki zuten.

Kulturantz proiektua zabalgoga zen hasieran. «Kultura desberdin gehiagoren artean egin nahi genuen elkartrukea, baina egungo egoeraren ondorioz eta kultura lehenesten ez den zerbait denez, ez du espero genuen diru laguntza jaso, soilik Ibarra Udalarena izan du», azaldu zuten Alurr dantza taldekoek. Hori dela eta, hiru herrialdetara mugatu beharra izan dute proiektua.

Azpiegituran ere lagundu du

mintegi monografikoak eta mahai ingurua, Ibarra udaletxeko batzar aretoan.

■ **22:00-00:00.** Kultura parte hartzaileen musika tailerrak gaztetxean.

UZTAILAK 2, ASTELEHENA

- **16:00-20:00.** Kultur espresio ugariaren tailerrak: dantza, musika eta gorputz-pintaketa: LH1, LH2 eta LH3, 16:00etatik 17:00etara; LH4, LH5 eta LH6,

udalak, eta horrez gain, herriko talde gehienek, eta norbanako aserak babesa dute. Hala, esaterako, gonbidatuentzako otorduez herriko elkarteak arduratuko dira. «Elkarte guztiaren egoera oso antzekoa da, eta ekimen honetan ikusiko den moduan, gogoz eta ilusioz gauza asko lor daitezke», gehitu du Bengoetxeak.

Alurr taldeko kidearen esanetan, «ekimen hau ahalik eta gehien baliatu behar dugu, herritar guztiok ez baitugu aukera kanpora joateko beste kulturak ezagutzera; aurretik, etxera etorriko dira, beraz, aukera polita da beste herrialdeak ezagutzeko».

17:15etik 18:15era; gazteak eta helduak, 18:45etik 19:45era. Goizean eman beharko da izena, kultur etxean.

UZTAILAK 6, OSTIRALA

- **22:00.** Kulturantz jaialdia: Ibarra Alurr dantza taldearen eta Rapa Nuiko dantza, musika eta kultur adiera ugariaren erakustaldia, Tolosako Euskal Herria plazan (euria egingo balu, Leidorren).

Eli Nosellas Alurr dantza taldeko arduradunak ekimena aurrera ateratzeko lagundu duten guztiak eskertu zituen herenegungo aurkezpenean, «beraien babesik gabe ez zelako posible izango horrelako zerbait egitea». Halaber, herritar guztiak gonbidatu ditu parte hartzera.

Bestalde, Jexux Peñagarikano Ibarra alkateak elkarlanean eta auzonalean gauzaturiko ekimena dela nabarmendu du. «Gure taldeak hasieratik garrantzi handia eman dio elkarlanari eta auzolanari, oso elementu herritarrek direlako, gure herrian oso sustraituta daudenak».

San Bartolome jaietako danborradako entseguak hastear dira

I. Terradillos Ibarra

Ibarra San Bartolome jaietako danborradaren prestaketa lanean eta entseguen hastear daude Ibarra. Hori dela eta, bertan parte hartu nahi duten 2008 urteko atzera (aurten 4 urte betetzen dituztenak) jaietako haur eta gaztetxo guztiak Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Txumitza, Danon, Ostaze eta Gaztelubide tabernetan zein kultur etxean jarriko dituzten zerrendatan izena eman dezaten eskatu dute Ibarra udalari. Animatzen direnak uztailaren 6a bitarte izango dute izena emateko aukera.

Sendabelar eta masaje tailerrak izango dira datorren astean, Atekabeltzen

I. Terradillos Leiza

Uztailaren 2an eta 5ean bi tailer izango dituzte Leitzako Atekabeltzen, 18:30etik aurrera. Uztailaren 2an sendabelar tailerra izango da. Belar desberdinekin egin daitezkeen ukenduak ikasiko dituzte. Uztailaren 5ean, berriz, masaje ikastaroa izango da. Belarrekin egindako olioarekin masajeak egingen ikasiko dute.

Oharra. Euskal Herria Sozialistak atxikimendua adierazi dio biharko Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) plataformak deitu duen manifestazioari. HITZAREN atzoko alean atxikimenduen zerrendan falta zen, beraz, barkatu eragozpenak.



Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



FELIPE TOLOSA SALSAMENDI

Atsedean beza,

Bere anaia, arreba, koinatuak eta ilobak

Tolosan, 2012ko ekainaren 29an



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	23°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agurrak



Urte askoan Amaiur!

Gaur 8 urte!
Muxu handi bat familia guztiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

agurrak

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Urgarden taldeak Ori iaibaia garbituko du bihar. Herritar guztiak gonbidatu ditu ekimenean parte hartzera, eta 10:30ean Berazubiko 66 tabernaren ondora azaltzera. Bota egokiak emateko eskatu dute taldeko kideek.
- **Tolosa.** Tolosa Kantariko Kantujira, bihar, 12:00etan, Tontokaletik abiatuta.
- **Tolosa.** TOPAren manifestazioa, bihar, 12:00etan, Trianguloa plazatik abiatuta ematen ari den osasun publikoaren pribatizatzea salatzen.
- **Tolosa.** Pello Odriozola euskal preso tolosarraren askatasuna eskatzeko manifestazioa deitu dute biharko, 19:30ean, Trian-

guloatik abiatuta *Biziarreko zigorrik ez!* Pello herrira! lelopean.

- **Tolosa.** Skate Festa bihar, 16:00etatik aurrera, skate pistana, Usabalen ondoan.
- **Tolosa.** Ereite elkarrekin ate irekien eguna ospatuko du bihar, San Esteban auzoan duen egoitza, 18:00etatik aurrera.
- **Ibarra.** Langostino Moto Festa: bihar, 14:00etan, hasiko da festa; 17:30ean, jokoak motorekin; 19:30ean, Andre Colomboren moto akrobaziak; 21:00etan afaria; 23:30ean, zuzien erakustaldia; 00:00etan rock jaialdia; 02:00etan strip-tease mixtoa; eta 03:00etan DJ Andoni. Etzi, 09:00etan, gosaria; 10:30ean, bira motorekin;

13:00etan, Ibarrara itzuliko dira; eta 14:00etan bazkaria, sari banaketa eta festaren amaiera.

ANTZERKIA

- **Amarotz.** Antzerki Astearen barruan, gaur, 18:30ean, Sanbhu taldearen *Kataklown*, bihar, 17:00etan Los Kikolas taldearen *Sin remite*, eta igandean, 17:00etan, Diego Magoa eta Jon Zabal magoaren *Magia de cerca* emanaldia.

JAIK

- **San Pedro jaiak.** Areson, Asteasun, Amarotzen, Leaburuen eta Urkizun San Pedro jaiak ospatuko dituzte datozen egunetan. Ikus egitaruak

tolosaldea.hitza.info webgunean.

MSUSIKA

- **Tolosa.** Tolosandblues jaialdia: gaur, 22:30ean, Down Town Trio, Euskal Herria plazan, eta 00:00etan, White Towels Blues Band, Frontoi kafetegian. Bihar, 13:00etan, Joan Pau Cummellas eta Miguel Talavera, Ilargi tabernan; 20:00etan, Belceblues, Euskal Herria plazan, 22:30ean, Velma Powell & Bluesdays, plaza Berrian, eta 00:00etan, Joan Pau Cummellas eta Miguel Talavera Maria Luisa Agirre plazan, Tontokalen. Etzi, 13:00etan, Joan Pau Cummellas eta Miguel Talavera, Ilargi tabernan.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU


- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Lekunberri.** Azpiz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



harpidedun izateak badu saria irabazleak

1 Aisia Orio Hotela
Bi laguntzako sasoiaren jartzeko zirkuitua eta bazkaria



Zatoz uda honetan gure terraza ikusgarriez gozatzera! Uztailak leian irekitzen degu. Abakando-arroz menua eta txuleta menua 18 eurotik aurrera. Plater konbinatuak, anoak, pintxoak, kopak, eta abar. Dena terrazan zerbitzatzen dugu eta prezioak krisiaren kontrakoak!

Hondartza bidea, 1 - Orio
Tel.: 943-89 44 40
www.aisiahoteles.com/orio

Eskaera egiteko, bi hilabete.

• **Eider Iturrioz Amondarain (Anoeta)**

2 Mahala sorta
Bi sorta




Mahala Berri baserria
Leaburu
Tel.: 943-67 07 24

• **Joxe Arrospide Aierza (Villabona)** • **Pedro Mari Olano Lizartza (Tolosa)**

Saridunek etxean jasoko dute sorta.

3 Txindokiko itzala
Hiru laguntzat bina sarrera



- **Xabier Zabala Iturralde (Alegia)**
- **Ignacio Baraibar Garmendia (Areso)**
- **Ion Arreseigor Gorostegi (Tolosa)**

Saridunek bina sarrera izango dituzte lehiatillean

4 Donostiako Aquariuma
Bi laguntzat bina sarrera



www.aquariumss.com

- **Ramon Jauregi Tolosa (Alegia)**
- **Carlos Urdanpilleta Arsuaga (Tolosa)**

Saridunek bina sarrera izango dituzte lehiatillean